



## TXOSTEN METEOROLOGIAKO – 2018KO APIRILA

**Apirila hezea eta tenperaturari dagokionez oso beroa izan zen. 2017 amaieran hasitako joera hezearekin jarraitu genuen, baina ez zen gauza berdina gertatu tenperaturarekin, izan ere ordura arte oro har hilabete hotzak izan genituen. Aurreko hilabeteekiko beste ezberdintasun bat ere izan zen, izan ere muturreko fenomeno meteorologikoei dagokienez, apirila lasaiagoa izan zen. Alabaina, hilaren 11ko eta hilaren 12an egunaren lehen partean izandako euri iraunkorraren eraginez alerta laranja igorri behar izan zen. Uholdeak izan ziren: Araban Zadorrako arroan, eta Gipuzkoan Deba, Urola, Oria eta Urumeako arroetan. EAerako udaberriko egunik euritsuena bezala har dezakegunaren ondorioa izan zen, XXI. mendeko aurreko urteekin alderatuz behintzat bai.**

### Prezipitazioa

Apirila hezea izan zen EAE osoan. Gipuzkoa ekialdean egin zuen euri gehien, beste leku batzuekin alderatuz diferentzia nabarmena izan zen, gainera. Nafarroako mugan 300 mm baino gehiago pilatu ziren (Eskas 355.5 mm, Berastegi 333.1 mm, Ameraun 324.7 mm). Gipuzkoa barnealdeaz gain, azpimarratzekoak dira isurialdeen banalerroaren inguruetakoko mendietako balioak (Sarria 184.1 mm, Otxandio 175.9 mm, Urkiola 168.1 mm). Euri gutxien Bizkaiko kostaldean eta Enkarterrietan (Bermeo 73.8 mm, Aranguren 83 mm, Balmaseda 89.4 mm), eta Arabako Lautadan (Subijana 72.6 mm, Espejo 73.3 mm, Tobillas 73.6 mm) egin zuen.

Euri-egun kopurua (prezipitazioa 1 mm edo handiagoa) kostaldean 16 izan zen, ohiko balioa baino zertxobait handiagoa urte sasoi horretarako. Araba erdialdean, ordea, ez ze horrela izan, batez besteko klimatologikora hurbildu ziren: 12 euri-egun. Euri-egun gehienak hilabeteke lehen hamabostaldian izan ziren.

Lehen hamabostaldian bereziki azpimarragarria izan zen hilaren 10etik 12rako tarte; orduan Iberiar penintsulako depresio hotz batek eragin zigun.

Hilaren 10ean euri gehien Arabako Mendietatik Bizkaiko ekialdeko kostaldera doan irudizko lerroan egin zuen, Arrasate-Aramaiotik pasatzen den lerroa (Kanpezu 62.6 mm, Iturrieta 41.4 mm, Urkulu 39.5 mm). Arabako eskualderako eta urte sasoi horretarako benetan ezohiko balioak dira. Gainera, prezipitazioaren parte handi bat elur moduan egin zuen. Izan ere, arratsaldean oso bizkor jaitsi zen elur-kota eta 500-600 m inguruan elurra egin zuen Araba hego-ekialdean. Antzeko egoera izan zuten gero Arabako Lautadan. Agurain inguruan 3 cm elur pilatu zen eta Vitoria-Gasteizen elur-bustia egin zuen gauean.

Hilaren 11a izan zen egunik korapilatsuena, euria etengabe egin baitzuen leku askotan. Izan ere, EAEn ordura arteko udaberriko egunik euritsuena izan zen,



XXI. mendeko aurreko urteekin alderatuz behintzat bai. Euria ugarien Gipuzkoa ekialdean eta erdialdean egin zuen; bigarren mailako maximoak Gorbeia inguruan izan ziren. Gipuzkoako estazioei dagokienez, 160 mm baino gehiago pilatu ziren (Bidania 169.3 mm, Berastegi 169.1 mm, Ameraun 167.3 mm, Eskas 163.4 mm). Gainerako estazioak balio horietatik urrun geratu ziren, baina hala ere ekialdeko beste bi estaziotan 100 mm baino gehiago jaso ziren (Añarbe 116.2 mm, Ereñozu 102.1 mm) eta 60 mm kantauri isurialdeko hainbat estaziotan eta baita mediterraneo isurialdeko pare batean ere (Sarria 91.3 mm, Otxandio 86.9 mm). Bizkaiko kostaldean eta Araba hego-mendebaldean prezipitazioa urria izan zen. Kota ertainetan goizaldean elurra egin zuen, baina gero epeltzera egin zuen eta elurra mendi inguruetan bakarrik egin zuen.

Hilaren 12an atertzera egin zuen nabarmen leku gehienetan, baina Gipuzkoa ekialdean euria egiten jarraitu zuen eta pilatutako euria oso ugaria izan (Eskas 75.1 mm, Berastegi 64.6 mm, Ameraun 45.5 mm).

Hilaren 11n ibaia eta erreken mailek bizkor egin zuten gora. Eguerdi parterako Araban Zadorrako arroan, eta Gipuzkoan Deba, Urola, Oria eta Urumeako arroetan arazoekin hasi ziren, hainbat estazio maila laranjatik gora baitzeuden. Zadorrako arroan, gainera, Ullibarri-Ganboako urtegiaren huste jarraitua gehitu zitzaion. Hilaren 12an, egoera hobetu eta arro gehienak, Abetxukoko estazioan eta Ereñozukoan salbu (urtegien huste lanean eraginpean baitzeuden) bere ubidera bueltatzen joan ziren.

Azkenik, aipagarria da denboraldi berorako bidean hasi ginela, eta horrekin batera, zaparrada trumoitsu handiak botatzeko joera ere handitu egin zela. Hori gertatu zen hilaren 22an; hegoaldetik zaparrada trumoitsu ertain-handiak sartu ziren, tximista ugarirekin, eta arratsalde-gauean EA Eren mendebaldean eragin zuten (Cerroja 17.9 mm/h, Sangroniz 16.4mm/h, Areta 16 mm/h, Gardea 15.9 mm/h, Orozko Sodupe 15 mm/h).

**Taula 1: Azken urteetan apirilean pilatutako prezipitazioa, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.**

	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011	2010	2009
Deusto	107.7	60.0	55.9	61.7	41.2	138.7	182.4	33.6	41.7	100.5
Lasarte	225.5	79.5	75.3	100.5	80.0	158.3	229.7	54.3	46.3	239.7
Arrasate	188.8	76.1	122.4	58.5	54.7	190.9	211.1	68.0	23.4	156.1
Abetxuko	123.6	17.7	49.6	39.2	36.5	74.0	102.6	62.4	18.7	47.2
Páganos	96.1	11.6	33.8	14.3	32.2	43.7	61.9	48.5	6.8	29.3



## Temperatura

Temperaturari dagokionez, apirila oso beroa izan zen. Kostaldean batez besteko temperatura 14-15 °C artekoa izan zen eta Arabako Lautadan, berriz, 11 °C-tik gora gelditu zen. EAE kontuan hartuz, 1981-2010 periodo normaleko batez besteko balioa baino ia 2 °C altuagoa. Azken urteetako apirilik beroenetakoa izan zen, batez ere Gipuzkoan; serie klimatologikoko errekorra duen 2011ko apirilak soilik gainditzen du 2018ko balioa.

Egun beroak nabarmen gailendu zitzaizkien egun hotzei, gainera anomalia oso nabarmenarekin. Egun hotzek, hilaren 9tik 11ra bitartean goi geruzan askatutako depresio batekin kointziditu zuten eta eguneko maximoek ez zuten 10 °C-ko muga gainditu barnealdeko zenbait lekutan.

Izotzik ia ez zuen egin. Izotza egin zuen egunetan, batez ere mendi inguruetan egin zuen. Hala ere, hilaren 1ean oraindik Arabako Lautadako zonalde batzuetan egin zuen izotza (Antoñana -1.8 °C, Egino -1.5 °C, Kanpezu -1.4 °C).

Hilaren 17an maximoak asko igo ziren. Ondorengo egunetan, kostaldean hilaren 21etara arte eta barnealdean 24ra arte, urte sasoi horretarako balio altuekin jarraitu genuen; zerua urdin egoteak horretan lagundu zuen. Baliorik altuenak hilaren 18an neurtu ziren, Bizkaiko kostalde inguruan 30 °C-tik gorakoak (Oleta 31.5 °C, Galindo 31.3 °C, Aranguren 31.1 °C, Arteaga 30.7 °C).

**Taula 2: Apirilean, azken urteetan, neurtutako batez besteko temperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.**

	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011	2010	2009
<b>Deusto</b>	14.4	12.7	13.4	15.5	14.6	13.0	11.7	16.6	14.2	11.8
<b>Lasarte</b>	14.3	12.1	12.1	14.2	13.6	12.2	10.8	15.8	13.6	11.7
<b>Arrasate</b>	12.6	11.2	10.0	12.8	12.6	10.2	8.7	13.9	9.4	10.4
<b>Abetxuko</b>	11.4	10.5	9.2	12.1	12.5	9.9	8.4	12.9	11.8	9.4
<b>Párganos</b>	11.3	12.1	9.6	12.5	13.2	10.3	8.9	13.8	12.3	9.9

## Haizea

Apirilean haizearen norabidea oso aldakorra izan zen eta hori ohikoa izaten da udaberrian, eguraldia ere oso aldakorra izaten delako. Hilaren 23ra arte hego-osagaiko haizea nagusitu zen, eta denboraldi labur batzuetan mendebal/ipar-mendebaldeko haizea tartekatu zen. Ordutik aurrera mendebal/ipar-mendebaldeko haizeak eta ipar-ekialdekoak baldintzatu zuten egoera.

Apirila ez zen izan haizetsua, baina 100 km/h-ko atalasea bost egunetan gainditu zen lehen hamabostaldian.



Pasarterik esanguratsuen hilaren 2tik 4ra gauzatu zen, Galiziako kostaldetik Mantxako kanalera mugituz joan zen depresio batek eragindakoa. Haize bolada gogorrenak hilaren 3an neurtu ziren; depresio hark hego-osagaiko haize-bolada oso gogorrak eragin zituen, puntualki bortitzak. Haizeak batez ere EAEko mendebaldeko haizeguneak astindu zituen (Orduña 135 km/h, Cerroja 126.7 km/h, Punta Galea 107.3 km/h) eta baita haizegunea ez den lekuren bat ere (Saratxo 84.6 km/h).

Aipagarria izan zen baita ere, hilaren 11an, Kataluniako kostaldean kokaturiko depresio batek gurean eragindako iparraldeko haizearen indarra; Araba erdialdean 100 km/h-ko haize-boladak neurtu ziren (Herrera 101.5 km/h, Páganos 96.5 km/h).

## Analisia

### Apirilaren 1etik 2ra

Giro egonkorrekin hasi genuen hilabetea. Hilaren 1ean Alpeetan erdigunea zuten presio altuak gailendu ziren gurean. Hego haizearekin eta troposferako erdi mailako geruzetan sartu zen aire masa beroarekin, 850 hPa mailan 10 °C, hilaren 2an 25 °C-ko tenperatura maximoak neurtu ziren kantauri isurialdeko zenbait lekutan. Gero, hego-ekialdeko haizea zakartu eta erdi mailako hodei eta goi-hodeiak ugaritu egin ziren.

### Apirilaren 3tik 4ra

Hilaren 3an, presio altuak ekialderantz mugitu ziren eta Atlantikotik fronteei bidea ireki zitzaizkien; horiek gure lurralde zeharkatu zuten. Hilaren 3an, hego-mendebaldeko haizearekin iritsi zen fronte bat eta euri txikia utzi zuen. Hurrengo egunean, aldiz, gaineratu zen frontea aktiboagoa izan zen eta utzitako euria ere ugariagoa izan zen. Fronte hura, Galiziako iparraldean kokatu zen depresioari (979hPa) loturikoa zen; presio baxuko gune hura Britainiar uharteetarantz mugitu zen, bidean Kantauri itsasoa zeharkatuz. Goizean hego-mendebaldeko haizea zakarra eragin zuen eta arratsaldean haizea ipar-mendebaldearantz aldatzearekin batera gogotik egin zuen euria, batez ere ipar partean.

### Apirilaren 5etik 6ra

Hilaren 5ean, berriro ere presio altuak nagusitu ziren. Iberiar Penintsula hegoaldeetik sartu eta iparraldearantz zabaltu zuten euren eremua, arratsaldeko erdigunea Frantzia iparraldean kokatu arte. Zerua hodei gutxirekin agertu zen, goi-hodei batzuekin. Hilaren 6an, hego-haizea zakartu eta tenperaturak gora egin zuen (850 hPa-eko mailan 12 °C): maximoak 27 °C-ra iritsi ziren kantauri isurialdeko zenbait lekutan. Egunaren amaieran ekaitza lehertu zen Araba eta Gipuzkoa mendebaldeko zenbait lekutan, zaparrada ertainak utziz.



### **Apirilaren 7tik 8ra**

Hilaren 7an eguraldia nabarmen aldatu zen. Hego/hego-mendebaldeko haizearekin oso astiro mugitu zen fronte hotz batek zeharkatu zuen lurraldea; Nafarroa parean ia gelditu egon zen eta bertan prezipitazioa ugaria eta iraunkorra izan zen. Alabaina, mendebaldean, oro har, euria txikia izan zen. Hilaren 8an zeru estaliarekin eta euri pixka batekin esnatu zen eguna, baina ondoren hobera egin zuen eguraldiak.

### **Apirilaren 9tik 12ra**

Hilaren 9an goi-geruzetakoaska bati loturiko depresio txiki bat kokatu zen Cadizko Golkoan; berari loturiko fronte okluidu batek ia Iberiar Penintsula osoa zeharkatu zuen. Aska haren atzetik, ia astirik gabe, besteaska bat sortu zen, hotzagoa, -2 °C 850 hPa-eko mailan, eta hark ezegonkortasuna areagotu egin zuen. Itsasmailan, erdigunean 995 hPa-eko presioa zuen depresio batek Iberiar Penintsula osoa zeharkatu zuen eta hilaren 10ean Katalunia gainean kokatu zen fronte hotz batekin. Egunaren bigarren zatian, fronte hura hegoaldeetik sartu zen eta prezipitazio iraunkorra utzi zuen barnealdean, batez ere Araban. Prezipitazioaren iraunkortasunak eta eguratseko erdi mailako geruzetako haizegabeziak, elur-kotaren jaitsiera eragin zuten; Araba ekialdean 500-600 m-ra jaitsi zen, eta Vitoria-Gasteizen zuritu ez arren elurra egin zuen. Egoera hura, hilaren 11ko goizaldera arte luzatu zen eta ondoren elur-kotak gora egin zuen. Alabaina, egoera baretu beharrean, prezipitazioa ugaritu egin zen fronte okluidu baten ondorioz, bereziki lurraldearen ipar-ekialdean; fronte okluidu hura, Mediterraneotik Bizkaiko Golkorantz mugitu zen beste depresio bati loturikoa zen eta bidean betetzen joan zen. Gipuzkoa eta Nafarroa ipar partean pilatutako euri kopurua apartekoa izan zen, 170 mm 24 orduan. Hilaren 12an, goizean, euria ugari egin zuen oraindik, baina poliki-poliki depresioa desegiten zihoan heinean, egoera lasaituz joan zen arratsaldean.

### **Apirilaren 13tik 15era**

Hilaren 13an, goizean eguraldiak hobera egin zuen, baina arratsaldean Iberiar Penintsula hego-mendebaldeetik ekialderantz mugitu zen depresio txiki baten eraginpean, zaparradak bota zituen; zaparradak ertainak izan ziren, batez ere Bizkaian, Arboledan 9.3 mm/10' pilatu ziren. Hilaren 14an eguna hodei askorekin eta kantauri isurialdean zirimiria apur batekin hasi zen, baina berehala egin zuen hobera; eguzkia irten zen eta tenperaturak gora egin zuen. Dena den, hobekuntzak ez zuen luze iraun; igandean, hilaren 15ean, Atlantikotik iritsi zen beste fronte batek zerua oso hodeitsu utzi zuen eta gauean eta hilaren 16ko goizaldean euria egin zuen.

### **Apirilaren 16tik 22ra**

Hilaren 16an gailur antizikloniko indartsu bat Afrika iparraldetik Europa erdialdera luzatu zen. Omega itxurako blokeo egoera bat sortu zen, eta lurrazalean ere Europa erdialdean antizikloia nagusi zen, hilaren 17an 1027 hPa zituen erdian eta 1035 hPa hilaren 19an. Hilaren 18an tenperatura 15 °C-raino igo zen 850 hPa-eko mailan. Egoera harekin zerua ia oskarbi egon zen 22ra arte. Gainera, hego/hego-ekialdeko haizea ibili zen eta lurrazalean 30 °C-raino igo zen tenperatura kantauri isurialdeko leku askotan. Azken egun hartan



Cadizko Golko inguruan zegoen goi-geruzan askatutako depresio bati loturiko ezegonkortasun larro batzuk sartu ziren hegoaldeetik eta EA Eren mendebaldean zaparrada mardulak bota zituen; tximistak ere ugari izan ziren.

### Apirilaren 23tik 26ra

Egun haietan egoera zonala nagusitu zen; Atlantikoko antizikloia Europarantz sartu nahian ibili zen. Horrela, hilaren 23an Britainiar uharteen iparraldean zegoen depresio bati loturiko fronte hotz batek ukitu zigun eta hilaren 25ean antzeko egoera sinoptikoarekin beste fronte batek. Bi fronteek hodei ugari utzi zuten eta euri txikia, bereziki kantauri isurialdean eta hilaren 25ean. Egun haietan ipar-osagaiko haizea nagusitu zen, hilaren 23an eta 25ean ipar-mendebaldekoa eta hilaren 24an eta 26an ipar/ipar-ekialdekoa.

### Apirilaren 27tik 30era

Hilaren 27tik aurrera aska batek eragin zigun; aska horren isla gisa lurrazalean Atlantikoan depresio bat sortu zen. Depresio hura Europara Britainiar uharteen hegoaldeetik sartu zen; depresioaren erdiguneak Mantxako kanala zeharkatu zuen Eskandinaviarantz. Horrez gain, beste depresio bat sortu zen Iberiar penintsulan, eta ipar-ekialderantz mugitu zen, Frantziarantz. Askak (500 hPa-eko mailan -25 °C) bere ardatza hasieran EA Eren mendebaldean zuen, baina hilaren 29tik 30era bitartean perpendikularki kokatu zen. Egoera haren eraginez, lurrazalean data horietan izan ohi den temperatura baino balio baxuagoak izan genituen, prezipitazioa ugaria izan zen hilaren 28tik 30era bitartean hainbat lekutan eta elur-kota 1000-1500 m artean egon zen.






## Oinarrizko datu estatistikoak

Taula 3: 2018ko apirileko balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

Estazioa	Batez besteko Tenp. °C	Tenp. max. °C	Tenp. max.abs. °C	Tenp. min. °C	Tenp. min.abs. °C	Izotz- egunak	Pilatutako euria l/m <sup>2</sup>	Egun batean pilatutako euri max. l/m <sup>2</sup>	Euri- egunak.
Deusto	14.4	18.6	30.3	11.0	6.5	0	107.7	27.2	12
Lasarte	14.3	18.6	28.8	10.0	4.7	0	225.5	87.3	15
Arrasate	12.6	18.5	28.5	7.9	1.6	0	188.8	69.5	12
Abetxuko	11.4	17.4	26.4	6.3	-0.3	1	123.6	23.7	13
Páganos	11.3	16.2	23.5	7.3	1.7	0	96.1	25.8	11



## Eguneko temperatura eta prezipitazioaren grafikoak




Pilatutako prezipitazioa
  Temperatura minimoa
  Batez besteko tenperatura
  Temperatura maximoa




# Prezpitazioaren jokaera


**Behatutako prezpitazioa**  
*Precipitación observada*




**Prezpitazio normala**  
*Precipitación normal*



**Prezpitazio normalarekiko desbideratzea**  
*Desviación respecto a la precipitación normal*



**Prezpitazio normalarekiko portzentaia**  
*Porcentaje respecto a la precipitación normal*







## Muturreko egoerak

**Apirilean 20 abisu hori igorri zien, 1 prezipitazio iraunkorragatik, 2 prezipitazio handiagatik, 2 elurragatik, 4 haizeagatik haizeguneetan, 2 haizeagatik haizeguneak ez diren lekuetan, 2 olatuen altueragatik nabigaziorako eta 7 kostaldeko kalteengatik.**

**Gainera, 2 alerta laranja igorri ziren prezipitazio iraunkorragatik.**

- Hilaren 1ean olatuen altuera adierazgarria 1.5-2 m ingurukoa izan zen, 12 s-ko periodoarekin. Itsasgora 06:04an (ordu lokala) izan zen, 4.75 m-ko altuerarekin (Gainezka egiteko indizeak:  $I = 5.9$  m eta  $I_{mas} = 6.2$  m).

*Igandea, hilak 1: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldeko kalteak 05etatik 07etara ordu lokala.*

- Hilaren 2tik 4ra bitartean depresio bat Galiziatik Mantxako kanalera mugitu zen eta EAEn hego-mendebaldeko haize-bolada oso gogorak eragin zituen. Haizeak indartsuen hilaren 3an jo zuen, une batzuetan boladak bortitzak izan ziren, eta bereziki EAEn mendebaldeko haizeguneetan izan zuen eragina (Orduña 135 km/h, Cerroja 126.7 km/h, Punta Galea 107.3 km/h). Haizegunea ez den lekuren baten ere bai (Saratxo 84.6 km/h).

*Asteartea, hilak 3: Abisu Horia haizeagatik mendi inguruetan 18etatik 24etara ordu lokala.*

- Hilaren 4an, arratsalde-gauean olatuen altuera adierazgarria 3 m ingurukoa izan zen, 15 s-ko periodoarekin. Itsasgora 19:59an (ordu lokala) izan zen, 4.16 m-ko altuerarekin (Gainezka egiteko indizeak:  $I = 5.8$  m eta  $I_{mas} = 6.2$  m).

*Asteazkena, hilak 4: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldeko kalteak 19:30etik 20:30era ordu lokala.*

- Hilaren 6an Iberiar penintsularen ipar-mendebaldean zegoen depresio baten ondorioz hego-osagaiko haize-bolada oso gogorak izan genituen. Arratsaldean neurtu ziren ufada gogorrenak, hego-ekialdetik jo zuen haizeak eta bereziki EAEn ekialdean izan zuten eragina, bai haizeguneetan (Jaizkibel 114.5 km/h, Untzueta 112 km/h, Oiz 108 km/h, Zarautz 102.6 km/h, Matxitxako 102.6 km/h) bai haizeguneak ez diren lekuetan ere (Ilarduia 110.5 km/h, Kanpezu 96.1 km/h, Salvatierra 87.5 km/h, Arkauti 85.7 km/h, Etura 81.7 km/h, Navarrete 80.3 km/h).

*Ostirala, hilak 6: Abisu Horia haizeagatik haizeguneak ez diren lekuetan Gipuzkoan eta Araban 00etatik 12etara ordu lokala. Abisu Horia haizeagatik haizeguneak ez diren lekuetan Gipuzkoan eta Araban 18etatik 24etara ordu lokala.*

*Ostirala, hilak 6: Abisu Horia haizeagatik mendi inguruetakoa haizeguneetan 18etatik 24etara ordu lokala.*



- Hilaren 10ean euri iraunkorra egin zuen. Euri gehien Arabako Mendietatik Bizkaiko ekialdeko kostaldera doan irudizko lerroan egin zuen, Arrasate-Aramaiotik pasatzen den lerroan (Kanpezu 62.6 mm, Iturrieta 41.4 mm, Urkulu 39.5 mm).

*Asteartea, hilak 10: Abisu Horia prezipitazio iraunkorragatik Bizkaian eta Gipuzkoan 12etatik 24etara ordu lokala.*

- Hilaren 10ean elur-kota oso bizkor jaitsi zen arratsaldean eta 500-600 m inguruan elurra egin zuen Araba hego-ekialdean. Gero pixkanaka elurra Arabako Lautadara ere zabaldu zen. Salvatierra-Agurain inguruan 3 cm inguru elur pilatu zen. Vitoria-Gasteizen elur bustia egin zuen gauean.

*Asteartea, hilak 10: Abisu Horia elurragatik barnealdean 21etatik 24etara ordu lokala.*

- Hilaren 10ean, gauean, olatuen altuera adierazgarria 3.5-4 m ingurukoa izan zen. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3 m inguruko olatuak altxatu zituen gauean, 14 s-ko periodoarekin.

*Asteartea, hilak 10: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehen bi miletan 21etatik 24etara ordu lokala.*

- Hilaren 11an euria etengabe egin zuen hainbat lekutan. Izan ere, EAEn ordura arteko udaberriko egunik euritsuena izan zen, XXI. mendeko aurreko urteekin alderatuz behintzat bai. Euria ugarien Gipuzkoa ekialdean eta erdialdean egin zuen; bigarren mailako maximoak Gorbeia inguruan izan ziren. Gipuzkoako estazioei dagokienez, 160 mm baino gehiago pilatu ziren (Bidania 169.3 mm, Berastegi 169.1 mm, Ameraun 167.3 mm, Eskas 163.4 mm). Gainerako estazioak balio horietatik urrun geratu ziren, baina hala ere ekialdeko beste bi estaziotan 100 mm baino gehiago jaso ziren (Añarbe 116.2 mm, Ereñozu 102.1 mm) eta 60 mm kantauri isurialdeko hainbat estaziotan (Araxes 95.6 mm, Ibai Eder 93.9 mm, Andoain 93.5 mm, Lasarte 87.3 mm, Zizurkil 87.3 mm, Belauntza 76.1 mm, Amorebieta 75.8 mm, Matxinbenta 75.6 mm, Urkizu 72.9 mm, Oiartzun 71 mm, Arrasate 69.5 mm, Iurreta 68.8 mm, Mañaria 67.8 mm, Estanda 67.1 mm, Ordizia 66.8 mm, Igorre 64.9 mm, Alegia 64.4 mm, Miramon 62.4 mm, Aitzu 60.2 mm) eta baita mediterraneo isurialdeko pare batean ere (Sarria 91.3 mm, Otxandio 86.9 mm). Bizkaiko kostaldean eta Araba hego-mendebaldean prezipitazioa urriagoa izan zen.

*Asteazkena, hilak 11: Abisu Horia prezipitazio iraunkorragatik Bizkaian eta Gipuzkoan 00etatik 24etara ordu lokala. Alerta Laranja prezipitazio iraunkorragatik Gipuzkoan 12etatik 24etara ordu lokala.*

- Hilaren 11n, goizaldean, kota ertainetan elurra egin zuen, 800 m-tik gora, baina segituan egin zuen epeltzera eta orduan mendi gailurretan bakarrik egin zuen elurra.

*Asteazkena, hilak 11: Abisu Horia elurragatik barnealdean 00etatik 09etara ordu lokala.*



- Hilaren 11n olatuen altuera adierazgarriak 3.5 m-ak gainditu zituen. Iparmendebaldeko hondoko itsasoak 3-3.5 m-ko olatuak altxatu zituen; arratsaldean olatuak txikitu egin ziren, 2.5-3 m-koak izan arte, 16-15 s-ko periodoarekin. Goizaldean olatuen altuera adierazgarria 4 m ingurukoa izan zen, 16s-ko periodoarekin. Itsasgora 02:30ean izan zen, 3.54 m-ko altuerarekin (Gainezka egiteko indizeak:  $I=5.7$  m eta  $I_{max}=6.2$  m).

*Asteazkena, hilak 11: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehen bi milietarako 00etatik 12etara ordu lokala.*

*Asteazkena, hilak 11: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldeko Kalteak 02etatik 03etara ordu lokala.*

- Hilaren 11n depresio bat kokatu zen Kataluniako kostaldean eta EAEn iparraldeko fluxua nagusitu zen. Araba erdialdean 100 km/h inguruko haizeboladak izan ziren (Herrera 101.5 km/h, Paganos 96.5 km/h).
- Hilaren 12an, eguerdira arte, prezipitazioa iraunkorra izan zen Gipuzkoa ekialdean. Zenbait lekutan 60 mm baino gehiago pilatu ziren (Eskas 75.1 mm, Berastegi 64.6 mm, Ameraun 45.5 mm).

*Osteguna, hilak 12: Alerta Laranja prezipitazio iraunkorragatik Gipuzkoan 00etatik 12etara ordu lokala. Abisu Horia prezipitazio iraunkorragatik Bizkaian 00etatik 12etara ordu lokala.*

- Hilaren 15ean olatuen altuera adierazgarria 1.5-2 m ingurukoa izan zen, 18 s-ko periodoarekin. Itsasgora 17:21ean (ordu lokala) izan zen 4.41 m-ko altuerarekin (Gainezka egiteko indizeak:  $I=6.1$  m eta  $I_{max}=6.6$  m).

*Igandea, hilak 15: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldeko Kalteak 16etatik 18etara ordu lokala.*

- Hilaren 16an olatuen altuera adierazgarria 2.5 m ingurukoa izan zen, 15 s-ko periodoarekin. Itsasgora 17:54an (ordu lokala) 4.52 m-ko altuerarekin (Gainezka egiteko indizeak:  $I=5.9$  m eta  $I_{max}=6.3$  m).

*Astelehena, hilak 16: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldeko Kalteak 17etatik 19etara ordu lokala.*

- Hilaren 17an olatuen altuera adierazgarria 2-2.5 m ingurukoa izan zen, 16-17 s-ko periodoarekin. Itsasgora 18:29an (ordu lokala) 4.55 m-ko altuerarekin (Gainezka egiteko indizeak:  $I=6.0$  m eta  $I_{max}=6.5$  m)

*Asteartea, hilak 17: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldeko Kalteak 18etatik 20etara ordu lokala.*

- Hilaren 18an olatuen altuera adierazgarria 2.5-3 m ingurukoa izan zen, 16-17 s-ko periodoarekin. Itsasgora 19:06an (ordu lokala) 4.49 m-ko altuerarekin. Gainezka egiteko indizeak:  $I=6.0$  m eta  $I_{max}=6.5$  m

*Asteazkena, hilak 18: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldeko Kalteak 18etatik 20etara ordu lokala.*



- Hilaren 22an goi-geruzan askatutako depresio bat zegoen Cadizko Golko inguruan. Hegoaldetik ezegonkortasun larriak iritsi ziren gurera eta prezipitazio handia egin zuen: zaparrada trumoitu ertain-handiak bota zituen eta deskarga elektriko ugari izan zen EA Eren mendebaldean arratsalde-gauean (Cerroja 17.9 mm/h, Sangroniz 16.4 mm/h, Areta 16 mm/h, Gardea 15.9 mm/h, Orozko Sodupe 15 mm/h).

*Igandea, hilak 22: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 20etatik 24etara ordu lokala.*



## Terminologia

*Batez besteko tenperatura:* hileko batez besteko tenperatura.

- *Tenperatura maximoa:* eguneko tenperatura maximoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura maximo absolutua:* hileko tenperaturarik altuena.
- *Tenperatura minimoa:* eguneko tenperatura minimoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura minimo absolutua:* hileko tenperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak:* hilean, tenperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa:* hilean pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa:* hilean, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak:* hilean, estazioak  $\geq 1$  mm-ko prezipitazioa neurtzen dueneko egun kopurua.

*Temperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:*

- *Erabat beroa:* tenperaturak, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa:*  $f < \%20$ . tenperatura, urterik beroenen %20ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa:*  $\%20 \leq f < \%40$ .
- *Ohikoa:*  $\%40 \leq f < \%60$ . tenperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza:*  $\%60 \leq f < \%80$ .
- *Oso hotza:*  $f \geq \%80$ . tenperatura, urterik hotzenen %20ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza:* tenperatura, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

*Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:*

- *Erabat hezea:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea*  $f < \%20$ . prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen %20ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea:*  $\%20 \leq f < \%40$ .
- *Ohikoa:*  $\%40 \leq f < \%60$ . prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra:*  $\%60 \leq f < \%80$ .
- *Oso lehorra:*  $f \geq \%80$ . prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen %20ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologi gidan aurki daiteke:

[http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5893/eu/contenidos/informacion/manual\\_estilo/eu\\_9900/eu\\_manual.html](http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5893/eu/contenidos/informacion/manual_estilo/eu_9900/eu_manual.html).

**OHARRA:** txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatzeke daude.